

LH. 3, 4

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea / Ondoren 2-3

IKASGAIA	IKASGAI ERLAZIONATUAK	GAI EKOSOZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza	Euskara eta literatura eta gaztelania eta literatura	Ekodependentzia Biosferaren funtzionamendua Aldaketa ekosozialeko eragileak	Hondakinak Kontsumoa Biodibertsitatea Ohitura jasangarriak Aldaketa klimatikoa



## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Biodibertsitatea da gure planetako bizitzaren aberastasuna. Espezie bakoitza, handia edo txikia, erabakigarria da ekosistemaren orekan.

### Abiapuntua

*Bizi-ohitura iraunkorrak hartzea ezinbestekoa da aniztasun hori zaintzeko. Ekoetxea Urdaibaira egingo dugun bisita honetan, bioaniztasunaren garrantziaz eta ingurunearekiko harremana nola hobetu dezakegun azalduko dizugu.*

**AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.** Ikas esperientzian zehar egindako ekintza ezberdinei esker ikasleak naturatik hurbilago egongo dira eta natura zaintzeko tresna ezberdinak ezagutuko eta erabili ahal izango dituzte.



## HELBURU KOMPETENZIALAK

- Oinarrizko jakintzak eskuratzea, Urdaibaiko ingurune naturaletan bizitako esperientzia esanguratsuen bidez, ikasleen pentsatzeko eta jarduteko modua aldatzeko jasangarritasun irizpideen arabera.
- Biodibertsitatearen garrantziaz jabetzea, berekiko eta naturarekiko ardura eta errespetua bermatzeko.
- Gizakiak egiten dituen biodibertsitatearen erabilerak, inguruko ekosistemak aztertuta honen eraginez hausnartzeko eta etorkizunean egoera jasangarrira heldu ahal izateko.

## Curriculumaren zehaztapenak

## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK	1,2,3 1,2 1,2,4,6 1,2 4,5 4 1,3	<b>2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilia, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.</b>	2.1. Gogoeta egitea eta galdera egokiak egiten ikastea, modu gidatu eta gidatuan.  2.3. Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneari buruz egindako galderari erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak interpretatuz eta egindako iragarpenekin alderatuz.	<b>A. Kultura zientifikoa</b> <b>1. Jarduera zientifikorako hastapenak:</b> – Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan iturri seguru eta fidagarrietatik informazioa modu kooperatiboan eta gidatuan bilatzeko estrategiak, baliabide digital eta analogikoen bidez ikerketa zientifikoei eta/edo sozialei erantzuna emateko eta horien zabalkundea egiteko.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 4 1,4 1 1,2	<b>5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.</b>	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura ingurune elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiaren bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz. 5.2. Natura-, gizarte- eta kultura ingurune elementuen arteko konexioa. errazak identifikatzea, eta ezartzen diren harremanak ulertzea. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea balioestea eta babestea, guztien ondasuntzat jotzea, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartzea eta ondare hori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzea.	<b>A. Kultura zientifikoa</b> <b>2. Bizitza gure planetan:</b> – Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisia oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak. – Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. – Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpialdeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea. – Landareen berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenaren arabera sailkatzeko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea. <b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> <b>2. Gizarteak denboran zehar</b> – Natura- eta kultura-ondarea. Natura-gune eta kultura-gune babestuak eta horien kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Herrian. Horien erabilera, zaintza eta kontserbazioa.



LH. 3, 4

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea / Ondoren 2-3

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	<b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b>	<p>6.1. Pertsonen bizitzaren eta inguruneko elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboek eta negatiboek jabetuta eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuta.</p> <p>6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura jasangarri egokiak praktikan jartzea.</p> <p>6.3. Inguruneko arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuta.</p>	<p><b>A. Kultura zientifikoa</b></p> <p><b>2. Bizitza gure planetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan.</li> <li>– Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitata suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...).</li> </ul> <p><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b></p> <p><b>4. Kontzientzia ekosoziala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek inguruneko paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera. Arintze-neurriak. Naturaren kontserbazioa eta babesa.</li> <li>– Ekosistema naturalen eraldaketa eta degradazioa.</li> <li>– Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak. Animaliekiko tratua txarra eta horren prebentzioa.</li> <li>– Bizi-ohitura jasangarriak. Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.</li> </ul>




## EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK	2 2 4 1,3 3 3	<b>2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-premiei erantzuteko.</b>	2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inpliziturik errazena ezagutzeko eta edukiaren eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarrizkoen balorazio kritikoa laguntzarekin aurrera eginez.	<p><b>B. Komunikazioa</b></p> <p><b>2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta oinarrizko testuinguru formaletan—, hizkuntza-kortesiako oinarrizko estrategiak eta norberaren hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioko oinarrizko estrategiak mobilizatuz.</li> </ul> <p><b>5. Informazio alfabetatzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan, informazio errazaren bilaketa gidaturako oinarrizko estrategiak.</li> </ul>

## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* 1. Giza ekodependentzia barneratzea. Bizitzaren sarearen parte garena ohartzea.
- \* 2. Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideia ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoa ekozentzismora igarotzea.
- \* 4. Lurreko biziaren funtzionamenduaren oinarriak ezagutzea: zikloak ixtea, eguzki-energia erabiltzea, aniztasuna areagotzea eta lankidetzak maximoa.
- \* 6. Bizi dugun zibilizazio-krisiaren egoera onartzea.



## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Izaki bizidun guztiak elkarrekin lotuta daudela onartzea.
- \* Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea / Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar ez dituela ez adieraztea.
- \* Bizitza osoari balioa ematea.
- \* Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.
- \* Bizitza osoaren babesari balio handia ematea, kulturalki arbuizatzen gaituena barne (ornogabeak, adibidez).
- \* Azaldu Lurreko elementuak behin eta berriz berrerabiliko ez balira bizitza ez litzatekeela posible izango.
- \* Espezie jakin batzuen arteko lehiatik haratago, bizitza osoa oso antolatua, koordinatua eta lankidetzakoa dela erakustea.
- \* Klima-aldaketa, energia- eta material-krisia eta biodibertsitatearen galera inpaktu sozialak dituzten arazo gisa identifikatzea.
- \* Planeta finitu batean ezerk mugarik gabe haztea ezinezkoa dela adieraztea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Ekodependentzia kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren baliabiderik gabe.
- \* Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- \* Natura zaintzearen garrantzia.
- \* Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean eta oreka ekosistemikoetan.
- \* Konexio emozionala naturarekin.
- \* Biodibertsitatea eta interkonexioak maximizatzea, bizitzaren segurtasunerako oinarriko mekanismo gisa.
- \* Espezieen arteko lankidetzak, Lurreko baliabide mugatuak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta bizitza osoa zabaltzeko.
- \* Klima-aldaketa, energia- eta material-krisia eta biodibertsitatearen galera, inpaktu sozialak dituzten arazo gisa.
- \* Baliabide finituen planeta batean etengabe hazteko ezintasunaren balorazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleo) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.

LH. 3, 4

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea / Ondoren 2-3



## Metodologia



### ESTRATEGIA

Arazoetan oinarritutako ikaskuntza  
Zereginetan oinarritutako ikaskuntza  
Gogoetan oinarritutako ikaskuntza  
Beste batzuk



### ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa  
Ekintzarako ikaskuntza  
Ikaskuntza aktiboa



### TEKNIKAK

**OHIKOAK:**  
Ikus-entzunezkoak  
Solosaldua  
Entzute kolektiboa  
Azalpenak talde handietan  
Beste batzuk

**EZOHIKOAK:**  
Beste batzuk:  
Interpretazio zentroa

